d) Aurreko beharkizunetako bat betetzen ez duten enpresek ez edukitzea entitate horien kapitalean, dela zuzenean dela zeharka, %25etik gorako partaidetzarik, non eta entitate horiek ez diren foru arau honen 59. eta 60. artikuluetan aipatutakoak, eta euren partaidetza ez den sozietate horien xede soziala bete-zearen ondorio bat.

2. Honako beharkizunak betetzen dituena enpresa ertain-tzat hartuko da:

- a) Ustiapen ekonomiko bat egitea.
- b) Bere eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunean definitutako eran, 50 milioi eurokoa baino handiagoa ez izatea, edo bere aktiboak 43 milioi euro ez gainditzea.
- c) Batez besteko plantilla 250 langiletik beherakoa izatea.

d) Aurreko beharkizunetako bat betetzen ez duten enpresek ez edukitzea entitate horien kapitalean, dela zuzenean dela zeharka, %25etik gorako partaidetzarik, non eta entitate horiek ez diren foru arau honen 59. eta 60. artikuluetan aipatutakoak, eta euren partaidetza ez den sozietate horien xede soziala bete-zearen ondorio bat.

3. Aurreko 1. eta 2. apartatuetan ezarritako beharkizunak zergaren sortzapena gertatzen den ekitaldia hasi aurreko zergaldian bete beharko dira.

Zergaldi hori urte naturala baino laburragoa izan bada, eragiketa bolumenari dagokion magnitudea urtebetera eramango da. Berdin jokatuko da entitatea sortu berria denean.

4. Aurreko 1. eta 2. apartatuetako c) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, batez besteko plantilla kalkulatzeko, urteen lanaldi osoko langileak zenbat diren begiratuko da. Lanaldi partzialeko langileen kasuan, lan egindako ordu kopuruaren proportzioan egingo da konputua.

5. Entitatea sozietate talde bateko kide bada Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotakoaren arabera, adierazitako magnitudeak talde horretako entitate multzoari buruzkoak izango dira.

Aktiboa eta eragiketa bolumena konputatzeko, kontuan hartuko dira Merkataritza Kodearen 46. artikuluan eta hura garatzen duten arauetan jasotakoagatik bidezko diren ezabaketak».

Sei. 88. artikuluan 1. apartatuko a) letra honela geratu da idatzita:

«a) Txertatu gabeko ezabaketak baterakuntza fiskaleko araubidea aplikagarri izan den azken zergaldian talde fiskalari dagokion oinarri ezargarrian sartuko dira.

Cinco. El artículo 49 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 49. Concepto de pequeña y mediana empresa.

1. Se entenderá como pequeña empresa aquella que cumpla los siguientes requisitos:

- a) Que lleve a cabo una explotación económica.
- b) Que su volumen de operaciones, tal y como se define en el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, o su activo no supere 10 millones de euros.
- c) Que el promedio de su plantilla no alcance las 50 personas empleadas.

d) Que no se hallen participadas directa o indirectamente en un 25 por 100 o más, por empresas que no reúnan alguno de los requisitos anteriormente expuestos, excepto que se trate de entidades a que se refieren los artículos 59 y 60 de esta Norma Foral, cuando la participación sea consecuencia del cumplimiento del objeto social de estas últimas.

2. Se entenderá como mediana empresa aquella que cumpla los siguientes requisitos:

- a) Que lleve a cabo una explotación económica.
- b) Que su volumen de operaciones, tal y como se define en el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, no supere los 50 millones de euros, o bien que su activo no exceda de los 43 millones de euros.
- c) Que el promedio de su plantilla no alcance las 250 personas empleadas.

d) Que no se hallen participadas directa o indirectamente en un 25 por 100 o más, por empresas que no reúnan alguno de los requisitos anteriormente expuestos, excepto que se trate de entidades a que se refieren los artículos 59 y 60 de esta Norma Foral, cuando la participación sea consecuencia del cumplimiento del objeto social de estas últimas.

3. Los requisitos expuestos en los apartados 1 y 2 anteriores deberán cumplirse en el período impositivo inmediato anterior al del devengo del impuesto.

En el caso de que dicho período impositivo hubiera sido inferior al año natural, se elevará al año la magnitud correspondiente al volumen de operaciones. Del mismo modo se procederá cuando se trate de una entidad de nueva creación.

4. A los efectos de lo dispuesto en las letras c) de los apartados 1 y 2 anteriores, para el cálculo del promedio de plantilla se considerarán los trabajadores por año a jornada completa. En el caso de trabajadores con jornada parcial su cómputo será proporcional a las horas trabajadas.

5. Cuando la entidad forme parte de un grupo de sociedades conforme al artículo 42 del Código de Comercio, las magnitudes anteriormente indicadas se referirán al conjunto de entidades pertenecientes a dicho grupo.

A efectos del cómputo del activo y del volumen de operaciones, se tendrán en cuenta las eliminaciones que procedan de acuerdo con lo previsto en el artículo 46 del Código de Comercio y en sus normas de desarrollo».

Seis. La letra a) del apartado 1 del artículo 88 queda redactada en los siguientes términos:

«a) Las eliminaciones pendientes de incorporación se integrarán en la base imponible del grupo fiscal correspondiente al último período impositivo en el que sea aplicable el régimen de consolidación fiscal.

Aurrekoa ez da aplikatuko entitate nagusia baterakuntza fiskaleko araubidean tributatzeko duen beste talde fiskal bateko menpeko bihurtzen denean, edo talde horretako beste sozietate batek, bategite prozesu baten bitartez, bera xurgatzen duenean foru arau honetako VIII. tituluaren X. kapituluaren jasota dagoen araubidera bilduta. Bi kasuetan, entitate nagusi horren menpeko ziren sozietate guztiak beste talde fiskal horretan integratzen dira. Ezabatutako emaitzak beste talde fiskal horren oinarri ezargarrian sartu behar dira, foru arau honek 80. artikuluan ezarritako eran».

Zazpi. 115. artikulua 1. apartatuko c) letraren edukia ezabatu da.

Zortzi. 15. apartatua gehitu zaio 115. artikuluari. Hona testua:

«15. Artikulu honetan jasotako ez da aplikatuko lurralde espainiarrean egoiliar ez den entitateak Europar Batasuneko beste estatu batean egoitza duenean, betiere subjektu pasiboak frogatzen badu bertan eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliodunak izan direla eta jarduera enpresariak egiten dituelan».

Bigarrena. 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako, edukirik gabe utzi da Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 29. artikulua 5. apartatuko a) letra.

Hirugarrena. 2009ko uztailaren 4tik aurrerako ondorioekin, 102. artikulua 1. apartatuko lehen paragrafoa aldatu da Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauan, eta honela geratu da idatzita:

«1. Kapitulu honetan jasotako araubidea aplikaziozkoa izango da, subjektu pasiboak hala aukeratzen badu, merkataritza sozietateen aldaketa estrukturalak onartzen dituen apirilaren 3ko 3/2009 Legeak 81. artikulutik 84. artikulura bitartean aipatzen dituen aktibo eta pasiboaren erabateko lagapenetan, behar-kizun hauek betetzen badira:»

Laugarrena. 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ondorioak izateko, aldaketak sartu dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren zazpigarren xedapen gehigarriaren a) letran, eta honela geratu da idatzita:

«a) Batasuneko nekazaritza politikaren laguntza hauek jasotzea:

1. Mahastigintza behin betiko uzteko laguntzak.
2. Sagarrondoak erauzteko prima.
3. Platanondoak erauzteko prima.
4. Esne ekoizpena behin betiko uzteko laguntzak.
5. Madariondo, mertxikondo eta nektarinondoan landaketa behin betiko uzteko laguntzak.
6. Madariondo, mertxikondo eta nektarinondoak erauzteko laguntzak.
7. Azukre-erremolatxa eta azukre-kanaberaren laboreak behin betiko uzteko laguntzak.

4. artikulua. *Maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Araua, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoa, aldatzea.*

2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan aplikatzeko, honako xedapenak aldatu dira Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauan:

Bat. 12. artikuluan aipatzen diren 1. eta 3. egoerak honela berridatzi dira:

Lo anterior no se aplicará cuando la entidad dominante adquiera la condición de sociedad dependiente de otro grupo fiscal que estuviese tributando en régimen de consolidación fiscal o sea absorbida por alguna sociedad de ese otro grupo en un proceso de fusión acogida al régimen especial establecido en el Capítulo X del Título VIII de esta Norma Foral, al cual se integran todas las sociedades dependientes en ambos casos. Los resultados eliminados se incorporarán a la base imponible de ese otro grupo fiscal en los términos establecidos en el artículo 80 de esta Norma Foral».

Siete. Se elimina el contenido de la letra c) del apartado 1 del artículo 115.

Ocho. Se añade un apartado 15 al artículo 115, con el siguiente contenido:

«15. Lo previsto en este artículo no será de aplicación cuando la entidad no residente en territorio español sea residente en otro Estado miembro de la Unión Europea, siempre que el sujeto pasivo acredite que su constitución y operativa responde a motivos económicos válidos y que realiza actividades empresariales».

Segundo. Con efectos para los períodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2010, se deja sin contenido la letra a) del apartado 5 del artículo 29 de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

Tercero. Con efectos desde el 4 de julio de 2009, se modifica el primer párrafo del apartado 1 del artículo 102 de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, que queda redactado en los siguientes términos:

«1. El régimen previsto en este capítulo se aplicará, a opción del sujeto pasivo, a las cesiones globales del activo y el pasivo referidas en los artículos 81 a 84 de la Ley 3/2009, de 3 de abril, sobre modificaciones estructurales de las sociedades mercantiles en las que concurren los siguientes requisitos:»

Cuarto. Con efectos para los períodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2007, se modifica la letra a) de la disposición adicional séptima de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, que queda redactada en los siguientes términos:

«a) La percepción de las siguientes ayudas de la política agraria comunitaria:

- 1.º Abandono definitivo del cultivo del viñedo.
- 2.º Prima al arranque de plantaciones de manzanos.
- 3.º Prima al arranque de plataneras.
- 4.º Abandono definitivo de la producción lechera.
- 5.º Abandono definitivo del cultivo de peras, melocotones y nectarinas.
- 6.º Arranque de plantaciones de peras, melocotones y nectarinas.
- 7.º Abandono definitivo del cultivo de la remolacha azucarera y de la caña de azúcar.

Artículo 4. Modificación de la Norma Foral 2/1997, de 22 de mayo, sobre Régimen Fiscal de las Cooperativas.

Con efectos para los períodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2009 se modifican los siguientes preceptos de la Norma Foral 2/1997, de 22 de mayo, sobre Régimen Fiscal de las Cooperativas:

Uno. Las circunstancias 1 y 3 del artículo 12 quedan redactadas en los siguientes términos:

«1. Diru zuzkidurarik ez egitea Derrigorrezko Erreserba Fondoari eta heziketarako, sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioari kooperatiben legeria aplikagarriak ezartzen dituen kasu, baldintza eta zenbatekoetan».

«3. Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 68 bis artikuluan ezartzen duen kontribuzioaren diru kopuruak artikulua honetan aurreikusi ez diren helburuetarako erabiltzea».

Bi. 16. artikulua 3. eta 4. apartatuak honela geratu dira idatzita:

«3. Kooperatibek heziketarako, sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako erabiltzen dituzten nahitaezko kopuruak, hurrengo artikuluan zehazten diren baldintzekin.

4. Bazkideek kapital sozialari beren borondatez nahiz derrigorrez egindako ekarpenek sortzen dituzten interesak (Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 57.5 artikuluan araututako ekarpenenak barne), eta aipatutako legearen 67.2.b) eta 68 bis artikuluetan aurreikusten den kontribuziora zuzendutako zuzkiduretatik datozenak, betiere haien interes tasak, bazkideentzat bi puntutan gehituta eta bazkide laguntzaile eta jardun gabekoentzat lau puntutan gehituta, diruaren legezko interesa gainditzen ez badu. Ekitaldi ekonomiko bakoitza ixtean indarrean dagoen legezko interes tasa izango da erreferentzia.

Kooperatibako partaidetza bereziak ordaintzeko erabiltzen diren diru kopuruak ez dira kengarriak izango, haien titularrak kooperatibako bazkide edo asoziatu ez direnean eta partaidetza horiek kapital sozialaren izaera dutenean».

Hiru. 17. artikulua honela geratu da idatzita:

«17. artikulua. Heziketarako, sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako bideratutako nahitaezko kontribuzioa gastu kengarriztat hartzeko baldintzak.

1. Heziketarako, sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako bideratutako nahitaezko kontribuzioaren zuzkiduragatik kengarria den zenbatekoak ezingo du ekitaldi ekonomiko bakoitzean gainditu ekitaldi horretako soberakin garbien 100eko 30.

Kooperatibaren Batzar Orokorrak onartzen duen planaren arabera aplikatuko da kontribuzioa.

2. Kontribuzioaren zuzkidurak eta planak exijitu ditzaiken aplikazioak, gastu arruntenak izan nahiz ibilgeturako inbertsioenak izan, bereizita jasoko dira sozietatearen kontabilitatean, kontribuzio horri atxikita daudela argi adierazten duten kontuetan.

3. Kontribuzio horretatik interes publikoko helburuak—kooperatibak berak aukeratutakoak— betetzeko erabili ez den zenbatekoa irabazi asmorik gabeko entitateei eman beharko zaie soberakina banatzea erabaki ondorengo ekitaldi ekonomikoaren barruan, eta entitate horiek kontribuzio honetarako ezarritako dauden interes publiko xedeetarako erabili beharko dute.

4. Kontribuzioa onartu ez diren helburuetarako erabiltzeak berarekin ekarriko du behar ez bezala aplikatutako zenbatekoa ekitaldi horretan izandako sarreratzat hartzea, 12. artikulua 3. apartatua xedatutakoaren kaltetan gabe.

Era berean jokatuko da Derrigorrezko Erreserba Fondoaren zatia bazkideen artean banatzen denean, 12. artikulua 2. apartatua xedatutakoaren kaltetan gabe.

«1. No efectuar las dotaciones al Fondo de Reserva Obligatorio y a la contribución obligatoria para la educación y promoción cooperativa y otros fines de interés público, en los supuestos, condiciones y por la cuantía exigida en la legislación cooperativa que le sea de aplicación».

«3. Aplicar cantidades de la contribución establecida en el artículo 68 bis de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, a finalidades distintas de las previstas en dicho artículo».

Dos. Los apartados 3 y 4 del artículo 16 quedan redactados en los siguientes términos:

«3. Las cantidades que las cooperativas destinen, con carácter obligatorio para la educación y promoción cooperativa y a otros fines de interés público con los requisitos que se señalan en el artículo siguiente.

4. Los intereses devengados por los socios por sus aportaciones obligatorias o voluntarias al capital social, incluidas las reguladas en el artículo 57.5 de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi y aquéllos derivados de las dotaciones a la contribución prevista en los artículos 67.2.b) y 68 bis de la citada Ley, siempre que el tipo de interés no exceda del legal del dinero, incrementado en dos puntos para los socios y cuatro puntos para los socios colaboradores o inactivos. El tipo de interés legal que se tomará como referencia será el vigente en la fecha de cierre de cada ejercicio económico.

No tendrán la consideración de deducibles las cantidades destinadas a retribuir participaciones especiales en la cooperativa, cuyos titulares no sean socios o asociados de la cooperativa cuando éstas tengan la consideración de capital social».

Tres. El artículo 17 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 17. Requisitos para la deducción como gasto de la contribución obligatoria para la educación y promoción cooperativa y otros fines de interés público.

1. La cuantía deducible de la dotación a la contribución obligatoria para la educación y promoción cooperativa y otros fines de interés público no podrá exceder en cada ejercicio económico del 30 por 100 de los excedentes netos del mismo.

La contribución se aplicará conforme al plan que apruebe la Asamblea General de la cooperativa.

2. Las dotaciones a la contribución, así como las aplicaciones que requiera el plan, ya se trate de gastos corrientes o de inversiones para el inmovilizado, se reflejarán separadamente en la contabilidad social, en cuentas que indiquen claramente su afectación a dicha contribución.

3. El importe de la referida contribución que no se haya destinado a las finalidades de interés público indicadas por la propia cooperativa deberá entregarse, dentro del ejercicio económico siguiente a aquél en el que se aprobó la distribución del excedente, a entidades sin ánimo de lucro para su destino a las finalidades de interés público establecidas para esta contribución.

4. La aplicación de la contribución a finalidades distintas de las aprobadas dará lugar, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 12, a la consideración como ingreso del ejercicio en que aquélla se produzca del importe indebidamente aplicado.

De igual forma se procederá con respecto a la parte del Fondo de Reserva Obligatorio que sea objeto de distribución entre los socios, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 12.

5. Ekitaldia ixtean, gastu eta errenta negatiboen kontuen saldoak kontribuzioaren emaitzak bilduko dituen kontu berezi batean zordunduko dira, eta bereziki honako hauek:

- a) Prestakuntza, heziketa eta kultur sustapenerako gastu arruntak.
- b) Kontribuzioaren helburuei atxikitako ibilgetuaren ondasunak artatu, konpondu eta amortizatzeako gastuak.
- c) Ondasun horiek besterentzean izandako galerak.

6. Sarrera eta beste errenta positiboen kontuen saldoak ere modu berean zordunduko dira kontu horretan, eta bereziki honako hauek:

- a) Kontribuzioaren helburuak betetzeko jasotako subentzioak, dohaintzak eta laguntzak.
- b) Kooperatibak bazkideei ezarritako diziplinazko zigorrak.
- c) Aurreko 3. apartatuan aipatu diren materializazioen etekin finantzarioak.
- d) Kontribuzioaren helburu zehatzei atxikitako ibilgetuaren ondasunak besterentzean lortutako mozkinak.

7. Horrela zehaztutako emaitzen kontuaren saldoa kontribuzioaren kontura eramango da.

Kontribuzioaren emaitzen kontura eramaten diren gastu, galera, sarrera eta mozkinak ez dira kontuan hartuko kooperatibaren Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarrria kalkulatzeko.

8. Artikulu honetan xedatutakoa beste edozein kontribuzio edo fondori ere aplikatuko zaio xedapen honetan araututako izaera eta helburu berdinak baditu, baita dagokion legeria aplikagarriaren indarrez beste izenen bat hartzen badu ere».

Lau. 26. artikulua 1. apartatuko c) letra honela berridatzi da:

«c) Ondasunak eta eskubideak eskuratzea Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 68 bis artikuluan ezarritako kontribuzioaz baliatuta, artikuluko horretan jasotako helburuak betetzeko».

Bost. 43. artikulua 1. apartatuko c) letra honela berridatzi da:

«c) Ondasunak eta eskubideak eskuratzea Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 68 bis artikuluan ezarritako kontribuzioaz baliatuta, artikuluko horretan jasotako helburuak betetzeko».

II. KAPITULUA

ALDAKETAK ZEHARKAKO ZERGETAN

5. artikulua. *Abenduaren 30eko 18/1987 Foru Araua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoa, aldatzea.*

Ondoko xedapenak aldatu dira Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauan:

Bat. 7. artikulua 3. apartatua honela geratu da idatzita:

«3. Hipoteka Legearen 11. artikuluan aipatzen diren baldintza suntsiarazle espresuak prezio geroratuaren ordainketa saldatutako ondasun higiezinarekin bermatzen duten hipotekekin parekatu dira.

5. Al cierre del ejercicio se cargarán a una cuenta especial de resultados de la contribución los saldos de las cuentas representativas de gastos y rentas negativas, y en particular:

- a) Los gastos corrientes de formación, educación y promoción cultural.
- b) Los gastos de conservación, reparación y amortización de los bienes del inmovilizado afectos a las finalidades de la contribución.
- c) Las pérdidas producidas en la enajenación de esos mismos bienes.

6. En forma análoga se abonarán a la misma cuenta los saldos de las cuentas representativas de ingresos y otras rentas positivas, y en particular:

- a) Las subvenciones, donaciones y ayudas recibidas para el cumplimiento de los fines de la contribución.
- b) Las sanciones disciplinarias impuestas por la cooperativa a sus socios.
- c) Los rendimientos financieros de las materializaciones a que se refiere el apartado 3 anterior.
- d) Los beneficios derivados de la enajenación de bienes del inmovilizado afecto a las finalidades concretas de la contribución.

7. El saldo de la cuenta de resultados así determinados se llevará a la de la contribución.

Las partidas de gastos, pérdidas, ingresos y beneficios trasladados a la cuenta de resultados de la contribución, no se tendrán en cuenta para la determinación de la base imponible del Impuesto sobre Sociedades de la cooperativa.

8. Lo dispuesto en el presente artículo será aplicable igualmente a cualquier contribución o Fondo de naturaleza y finalidades similares al regulado en este precepto, aunque reciba distinta denominación en virtud de la normativa aplicable al mismo».

Cuatro. La letra c) del apartado 1 del artículo 26 queda redactada en los siguientes términos:

«c) Las adquisiciones de bienes y derechos a que se destine la contribución establecida en el artículo 68 bis de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, para el cumplimiento de las finalidades previstas en dicho artículo».

Cinco. La letra c) del apartado 1 del artículo 43 queda redactada en los siguientes términos:

«c) Las adquisiciones de bienes y derechos a que se destine la contribución establecida en el artículo 68 bis de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, para el cumplimiento de las finalidades previstas en dicho artículo».

CAPÍTULO II

MODIFICACIÓN DE IMPUESTOS INDIRECTOS

Artículo 5. Modificación de la Norma Foral 18/1987, de 30 de diciembre, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Se modifican los siguientes preceptos de la Norma Foral 18/1987, de 30 de diciembre, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados:

Uno. El apartado 3 del artículo 7 queda redactado en los siguientes términos:

«3. Las condiciones resolutorias explícitas a que se refiere el artículo 11 de la Ley Hipotecaria, se equiparán a las hipotecas que garanticen el pago del precio aplazado con el mismo inmueble vendido.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako eta salbuetsi gabeko ondasun higiezinaren eskualdaketetan prezio geroratua ordaintzea bermatzen duten hipotekek eta baldintza suntsiarazle espresuek ez dute zergarik ordainduko «kostu bidezko ondare eskualdaketak» kontzeptuagatik».

Bi. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 7. artikulua 5. apartatuko b) letra aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«b) Subjektu pasiboaren ondare enpresarial edo profesionalaren parte diren eta, bere bitartekoak erabilita, jarduera enpresarial edo profesional bat garatu dezakeen unitate ekonomiko autonomo bat osatzen duten elementu gorpuzdunak eta, hala badagokio, gorpuzgabeak eskualdatzean ondasun higiezinaren entregak egitea, baldin eta kasuan kasuko zirkunstantziengatik ondare horren eskualdaketa ez badago Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta.

Letra honetan aipatu diren kasuetan, eskualdaketa horretan sartzen diren higiezinak ez diren gainerako ondasun eta eskubideen salmentak ez dira lotuta egongo titulu honetan araututa dagoen «kostu bidezko ondare eskualdaketak» kontzeptuari.

Hiru. 11. artikulua 1. apartatuko e) letra aldatu da, eta f) letra gehitu zaio apartatu horri. Hona hemen testuak:

«e) Aurreko a) letran xedatutakoaren salbuespen gisa, etxebizitzaren eskualdaketa orokorrak, ondorengo letran aipatutakoak izan ezik, %4 tasaren arabera zergapetuko dira, bi unitate bitarteko garaje plazak, eta haiekin batera eskualdatzen diren eranskinak barne hartuta. Ondorio horietarako, negozioetarako lokalak ez dira etxebizitzaren eranskintzat hartuko, etxebizitzarekin batera eskualdatu arren.

Etxebizitza izateko egokitzen diren lokalen kasuan zergapekoa pertsona fisikoa denean eta lokala jarduera ekonomiko bati atxikita ez dagoenean, benetan ordaindutako zergaren eta eskuratutako higiezinari %4ko tasa aplikatzearen arteko diferentzia itzuliko du Zerga Administrazioak, zergapekoak aurrez eskaturik. Horretarako, dena den, beharrezkoa izango da letra honek zerga tasa hori aplikatzeko exijitzen dituen baldintzak betetzea eta, gainera, eskuraketa egin eta 18 hilabeteko epean zergapekoak frogatzea etxebizitza gisa erabiliko duen lokalak lehen erabilerarako edo lehen okupaziorako lizentzia jaso duela. Itzulketa horrek ez du berandutza interesik sortuko.

f) 1.^a Ondoko eskualdaketak %2,5 aplikatuta zergapetuko dira:

— 120 metro karratutik gorako azalera eraikia edo 96 metro karratutik gorako erabilgarria ez duten etxebizitzak, eta orobat, haien garajeak (bi unitate gehienez) eta haiekin batera eskualdatzen diren eranskinak. Ondorio horietarako, negozioetarako lokalak ez dira etxebizitzaren eranskintzat hartuko, etxebizitzarekin batera eskualdatu arren.

— Familia bakarreko etxebizitzak, haien azalera eraikia 120 metro karratutik gorakoa ez denean edo 96 metro erabilgarri baino gehiago ez dituztenean, eta lursailaren azalera, eraikinak hartzen duena barne, 300 metro karratukoa baino handiagoa ez denean.

2.^a Ondokoak ere %2,5eko tasa aplikatuta zergapetuko dira, eskuratzailerak familia ugariaren titularra izanez gero:

— Etxebizitzak eta haien garajeak (bi gehienez), eta haiekin batera eskualdatzen diren eranskinak. Ondorio horietarako, negozioetarako lokalak ez dira etxebizitzaren eranskintzat hartuko, etxebizitzarekin batera eskualdatu arren.

Las condiciones resolutorias explícitas, así como las hipotecas, que garanticen el pago del precio aplazado en las transmisiones de bienes inmuebles sujetas y no exentas al Impuesto sobre el Valor Añadido no tributarán por este concepto de «transmisiones patrimoniales onerosas».

Dos. Con efectos a partir del 1 de enero de 2009, la letra b) del apartado 5 del artículo 7 queda redactada en los siguientes términos:

«b) Las entregas de aquellos inmuebles que estén incluidos en la transmisión de un conjunto de elementos corporales y, en su caso, incorporales que, formando parte del patrimonio empresarial o profesional del sujeto pasivo, constituyan una unidad económica autónoma capaz de desarrollar una actividad empresarial o profesional por sus propios medios, cuando por las circunstancias concurrentes la transmisión de este patrimonio no quede sujeta al Impuesto sobre el Valor Añadido.

En los supuestos a los que se refiere esta letra, no estarán sujetas al concepto «transmisiones patrimoniales onerosas», regulado en el presente Título, las entregas de los demás bienes y derechos distintos de los inmuebles incluidos en dicha transmisión».

Tres. Se modifica la letra e) del apartado 1 del artículo 11 y se adiciona una nueva letra f), con la siguiente redacción:

«e) Por excepción a lo dispuesto en la letra a) anterior, la transmisión de viviendas en general, excepto las señaladas en la letra siguiente, tributarán al 4% incluidas las plazas de garaje, con un máximo de dos unidades y anexos que se transmitan conjuntamente. A estos efectos no tendrán la consideración de anexos a viviendas los locales de negocio, aunque se transmitan conjuntamente con la vivienda.

Cuando el obligado tributario sea persona física y se trate de la habilitación de un local como vivienda, que no estén afectos a una actividad económica, la Administración tributaria, previa solicitud, devolverá la diferencia entre el impuesto efectivamente satisfecho y el importe correspondiente a aplicar al inmueble adquirido el tipo impositivo del 4%, cuando además de cumplirse los requisitos exigidos en esta letra para la aplicación del mencionado tipo impositivo, el obligado tributario acredite dentro del plazo de 18 meses a partir de la adquisición, que ha obtenido la licencia de primera utilización u ocupación como vivienda para el referido local. Dicha devolución no devengará intereses de demora.

f) 1.º Tributarán al 2,5 %, las siguientes transmisiones:

— Viviendas cuya superficie construida no sea superior a 120 metros cuadrados ó 96 metros cuadrados útiles, así como sus garajes, con un máximo de dos unidades, y anexos que se transmitan conjuntamente. A estos efectos no tendrán la consideración de anexos a viviendas los locales de negocio, aunque se transmitan conjuntamente con la vivienda.

— Viviendas unifamiliares cuya superficie construida no sea superior a 120 metros cuadrados ó 96 metros cuadrados útiles, y la superficie de la parcela, incluida la ocupada por la edificación, no supere los 300 metros cuadrados.

2.º También tributarán al 2,5% las siguientes transmisiones cuando el adquirente sea titular de familia numerosa:

— Viviendas, así como sus garajes, con un máximo de dos unidades, y anexos que se transmitan conjuntamente. A estos efectos no tendrán la consideración de anexos a viviendas los locales de negocio, aunque se transmitan conjuntamente con la vivienda.

— Familia bakarreko etxebizitzak.

Letra honetan jasotako ondorioetarako, familia bakarreko etxebizitzatzat hartuko da sarrera independentea duena, bakar-tua izan, binakakoa, atxikia edo ilaran antolatua.

f) letra honetan aipatzen den %2,5eko tasa aplikatzeko ondoko beharkizunak bete beharko dira:

1. Eskuratzaila ez izatea udalerrri berean beste etxebizitza baten jabea %25etik gorako portzentajea.

Eskuratzailak ez badu eskualdatu udalerrri berean kokatuta dagoen aurreko ohiko etxebizitza, 100eko 4ko tasa aplikatuko da. Hala ere, artikulu honetan exijitzen diren baldintzak bete-tzen badira, eta horrez gainera, eskurapena egin eta 18 hilabe-teko epean zergapekoak frogatzen badu etxebizitza saldu duela, zerga Administrazioak atzera bueltatuko dio, zergapekoak eska-turik, benetan ordaindutako zergaren eta erositako higiezinari tasa murriztuta aplikatzearen arteko diferentzia. Itzulketa horrek ez du berandutza interesik sortuko.

2. Eskuratzailaren ohiko bizilekua izateko erabiltzea etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 90.8 artiku-luan eta hura garatzen duten arauetan ezarritakoarekin bat eto-rriz.

2. zenbakian jasotako beharkizuna betetzen dela justifikatzen duen dokumentazioa hamabi hilabeteko epean aurkeztu beharko da gehienez, etxebizitza eskuratu denetik zenbatzen hasita. Baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko, zuzenbidean onartutako frogabideak erabili ahal izango dira.

3. Eskuraketaren agirian adieraztea letra honetan ezarri-tako baldintzak betetzen direla edo beteko direla.

f) letra honetan xedatutakoa aplikatzeko, azalera eraikitzat hartuko da fatxadetako lerro perimetralen barruan (kanpoko zein barrukoetan) eta mehelinetako ardatzen artean dagoena.

Estalita dauden hegala, balkoiak edo terrazak azalera erai-kiaren parte izango dira alboetatik hormek mugatuta daude-nean; bestela, haien azaleraren %50 baino ez da konputatuko, modu berean neurtuta.

f) letra honetan aipatzen den azalera eraikiaren barruan inolaz ere ez da konputatu behar elementu komunek okupatzen duten azaleraren zati proportzionalari dagokiona.

Aurreko e) letraren azken paragrafoan jasotakoaren sal-buespen gisa, etxebizitza izateko egokitzen diren lokalen kasuan zergapekoa pertsona fisikoa denean, benetan ordaindu-tako zergaren eta eskualdatutako higiezinari %2,5eko tasa aplikatzearen arteko diferentzia itzuliko du Zerga Adminis-trazioak, zergapekoak aurrez eskaturik. Horretarako, dena den, beharrezkoa izango da letra honetako 1. eta 2. zenbakietan eta bere xedapen orokorretan zerga tasa hori aplikatzeko exijitzen diren baldintzak betetzea, eta zergapekoak eskualdaketa egin eta 18 hilabeteko epean frogatzea etxebizitza gisa erabiliko duen lokalerako lehen erabilera edo okupaziorako lizentzia eskuratu duela. Itzulketa horrek ez du berandutza interesik sor-tuko».

— Viviendas unifamiliares.

A los efectos previstos en esta letra, se considera vivienda unifamiliar aquélla que tiene entrada independiente, bien ais-lada, pareada, adosada o en hilera.

Para la aplicación del tipo del 2,5% a que se refiere esta letra f) será preciso reunir los siguientes requisitos:

1. Que el adquirente no sea propietario de otra vivienda en un porcentaje superior al 25% dentro del término municipal en que radica la vivienda objeto de adquisición.

Cuando el adquirente no haya transmitido la anterior vivienda habitual sita en el mismo término municipal que la vivienda adquirida, se aplicará el tipo del 4 por 100. No obs-tante, la Administración tributaria, previa solicitud del obligado tributario, devolverá la diferencia entre el impuesto efectiva-mente satisfecho y el importe resultante de aplicar al inmueble adquirido el tipo impositivo reducido, cuando además de cum-plirse los requisitos exigidos en este artículo, el obligado tribu-tario acredite dentro del plazo de 18 meses a partir de la adqui-sición, que ha procedido a la venta de la misma. Dicha devolución no devengará intereses de demora.

2. Que la vivienda se destine a residencia habitual del adquirente en los términos a que se refiere el apartado 8 del artí-culo 90 de la Norma Foral 10/2006, de 29 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y sus normas de desarrollo.

La documentación justificativa del cumplimiento del requi-sito contemplado en este número 2, se deberá presentar en el plazo máximo de doce meses a contar desde la adquisición de la vivienda. Para la acreditación del cumplimiento de esta condi-ción podrán utilizarse los medios de prueba admitidos en Derecho.

3. Que en el documento de adquisición se exprese que se cumplen o se van a cumplir los requisitos señalados en esta letra.

A los efectos de la aplicación de lo dispuesto en esta letra f), se entenderá por superficie construida la comprendida dentro de las líneas perimetrales de las fachadas, tanto interiores como exteriores, y los ejes de las medianerías.

Los cuerpos volados, balcones o terrazas que estén cubier-tos, formarán parte de la superficie construida cuando se hallen limitados lateralmente por paredes; en caso contrario se com-putará únicamente el 50% de su superficie, medida en la misma forma.

En ningún caso deberá computarse para el cálculo de la superficie construida a que se refiere esta letra f), la superficie correspondiente a la parte proporcional ocupada por elementos comunes.

Por excepción a lo previsto en el último párrafo de la letra e) anterior, cuando el obligado tributario sea persona física y se trate de la habilitación de un local como vivienda, la Administración tributaria, previa solicitud, devolverá la dife-rencia entre el impuesto efectivamente satisfecho y el importe correspondiente a aplicar al inmueble adquirido el tipo impositi-vo del 2,5%, cuando además de cumplirse los requisitos exi-gidos para la aplicación del mencionado tipo impositivo en alguno de los números 1.º y 2.º y en el condicionado general de esta letra, el obligado tributario acredite dentro del plazo de 18 meses a partir de la transmisión, que ha obtenido la licencia de primera utilización u ocupación como vivienda para el referido local. Dicha devolución no devengará intereses de demora».

Lau. 14. artikulua 3. apartatua honela geratu da idatzita:

«3. Arau orokor bezala, oinarri ezargarria zehazteko, emakidadunari ezarritako obligazioen izaeratik ondoren adierazten diren aplikagarri gertatzen den/diren erregela edo erregelak aplikatuz finkatuko da emakidarako sortarazitako eskubidearen balio erreala:

a) Administrazioak emakidadunak ordaindu beharreko prezio edo kanon kontzeptuagatik zenbateko bat ezartzen badu, zenbateko hori izango da balio erreala.

b) Administrazioak emakidadunak aldian-aldiri ordaindu beharreko kanon, prezio, partaidetza edo gutxieneko mozkin bat ezartzen badu, eta emakidaren iraupena urtebetetik gorakoa ez bada, balio erreala aldizkako prestazioen batura osoa izango da. Emakidaren iraupena urtebetekoa baino handiagoa denean, emakidadunak urtean ordaintzen duen zenbatekoa %10ean kapitalizatuz aterako da, emakidaren epea aintzat hartuta.

Erregela hau aplikatzeko urteko zenbateko aldakor bat kapitalizatu behar denean, eta aldakortasun horren arrazoi bakarra prezioak berrikusteko klausulen aplikazioa denean –bilakaeraren indize objektiboak erreferentziaz harturik–, lehen urteari dagokiona kapitalizatuko da. Aldakortasun hori beste zirkunstantzia batzuegatik gertatzen bada, eta haien arrazoi matematikoa emakida gauzatzen den unean ezagutzen bada, kapitalizatuko den zenbatekoa emakidadunak emakidak dirauen bitartean ordaindu behar dituen urteko batez bestekoa izango da.

c) Emakidadunak Administrazioari ondasun jakin batzuk itzuli behar badizkio, ondasun horiek itzulketa egunean duten kontabilitate balio garbia eta itzulketarako aurreikusita dauden gastuak konputatuko dira. Ondasunen kontabilitate balio garbia kalkulatzeko, Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako onartutako amortizazio taulak aplikatuko dira. Hain zuzen ere, horietatik ateratzen den batez besteko portzentajea aplikatuko da».

Bost. 17. artikulua 1. apartatua honela geratu da idatzita:

«1. Kreditu edo eskubideak eskualdatzen badira horien erabilerarekin dirutan baloratu daitezkeen ondasun jakin batzuk eskuratzeko, ondasun eta eskubide horien eskualdaketei dagozkien kontzeptu eta tasa berdinen arabera exijituko da zerga. Aldiz, eraikitzen ari diren ondasun higiezinaren kasuan, oinarri ezargarria kreditua edo eskubidea eskualdatzen den unean ondasunak duen balio erreala izango da. Gainera, ezingo da izan lagapenagatik ordaindutako kontraprestazioaren zenbatekoa baino txikiagoa».

Sei. 29. artikulua 2. apartatua honela geratu da idatzita:

«2. Eskrituren eta akta notarialen lehen kopiak, gainera, 100eko 0,5eko tasaren arabera zergapetuko dira, baldin eta kopuru edo gauza baloragarri bat baldin badute xedea, Jabetzaren, Merkataritzaren edo Ondasun Higigarrien Erregistroetan inskribatu daitezkeen egintza edo kontratuak jasotzen badiutze, eta egintza edo kontratu horiek ez badaude lotuta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari edo foru arau honen 1.1. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan sartutako kontzeptuei, egintza edo kontratu horiei dagokienez. Protesto akten kopiei tasa hori bera aplikatuko zaie».

Zazpi. 2010eko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, edukia eman zaio 41. artikulua 1. apartatuko B) letraren 11. zenbakiari. Hona zer dioen:

«11. Etxebizitzen lehen eskualdaketa dokumentatzen duten eskritura notarialen lehen kopiak, notaritzako agiriei egintza juridiko dokumentatuen modalitatean aplikagarri zaien eta foru arau honen 29.2 artikuluan aipatzen den karga tasari dagokionez».

Cuatro. El apartado 3 del artículo 14 queda redactado en los siguientes términos:

«3. Como norma general, para determinar la base imponible, el valor real del derecho originado para la concesión se fijará por la aplicación de la regla o reglas que, en atención a la naturaleza de las obligaciones impuestas al concesionario, resulten aplicables de las que se indican a continuación:

a) Si la Administración señalase una cantidad total en concepto de precio o canon que deba satisfacer el concesionario, por el importe de la misma.

b) Si la Administración señalase un canon, precio, participación o beneficio mínimo que deba satisfacer el concesionario periódicamente y la duración de la concesión no fuese superior a un año, por la suma total de las prestaciones periódicas. Si la duración de la concesión fuese superior al año, capitalizando, según el plazo de la concesión, al 10 por 100 la cantidad anual que satisfaga el concesionario.

Cuando para la aplicación de esta regla hubiese que capitalizar una cantidad anual que fuese variable como consecuencia, exclusivamente, de la aplicación de cláusulas de revisión de precios, que tomen como referencia índices objetivos de su evolución, se capitalizará la correspondiente al primer año. Si la variación dependiese de otras circunstancias, cuya razón matemática se conozca en el momento del otorgamiento de la concesión, la cantidad a capitalizar será la media anual de las que el concesionario deba satisfacer durante la vida de la concesión.

c) Cuando el concesionario esté obligado a revertir a la Administración bienes determinados, se computará el valor neto contable estimado de dichos bienes a la fecha de la reversión, más los gastos previstos para la reversión. Para el cálculo del valor neto contable de los bienes se aplicarán las tablas de amortización aprobadas a los efectos del Impuesto sobre Sociedades en el porcentaje medio resultante de las mismas».

Cinco. El apartado 1 del artículo 17 queda redactado en los siguientes términos:

«1. En la transmisión de créditos o derechos, mediante cuyo ejercicio hayan de obtenerse bienes determinados y de posible estimación, se exigirá el Impuesto por iguales conceptos y tipos que las que se efectúen de los mismos bienes y derechos. Sin embargo, en el caso de inmuebles en construcción, la base imponible estará constituida por el valor real del bien en el momento de la transmisión del crédito o derecho, sin que pueda ser inferior al importe de la contraprestación satisfecha por la cesión».

Seis. El apartado 2 del artículo 29 queda redactado en los siguientes términos:

«2. Las primeras copias de escrituras y actas notariales, cuando tengan por objeto cantidad o cosa valuable, contengan actos o contratos inscribibles en los Registros de la Propiedad, Mercantil y el de Bienes Muebles y no sujetos al Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones o a los conceptos comprendidos en los números 1.º y 2.º del artículo 1.1 de esta Norma Foral, tributarán, además al tipo de gravamen del 0,5 por 100, en cuanto a tales actos o contratos. Por el mismo tipo tributarán las copias de actas de protesto».

Siete. Con efectos a partir del 1 de julio de 2010, se da contenido al número 11 de la letra B) del apartado 1 del artículo 41, que queda redactado en los siguientes términos:

«11. Las primeras copias de escrituras notariales que documenten la primera transmisión de viviendas, en lo que se refiere al tipo de gravamen de la modalidad de actos jurídicos documentados aplicable a los documentos notariales, previsto en el apartado 2 del artículo 29 de la presente Norma Foral».

Zortzi. 52. artikulua honela geratu da idatzita:

«52. artikulua.

1. Bulego edo erregistro publikoetan ez da onartuko, eta ez du eraginik sortuko, zerga honi lotutako egintza edo kontratuei buruzko inolako agiririk, aurretik ez bada justifikatzen Zerga Administrazio eskudunari zerga zorra ordaindu zaiola, administrazio horrek salbuespena deklaratu duela, edo, gutxien jota, agiri hori administrazioari aurkeztu zaiola. Administrazio interesatuari berehala eman beharko zaio gertatzen diren gorabeheren berri. Epaitegi eta auzitegiek onartzen dituzten agirietan ez bada inolako oharrik ageri zerga Administrazioak likidatzeko aurkezpenaren inguruan, agiri horien kopia baimendua bidali beharko diote zerga likidatzeko eskumena duen administrazioari.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, zerga ordaindutat joko da baldin eta delako agiriarekin batera tributua ordaindu izana adierazten duen autolikidazioa aurkeztu bada.

3. Inskripzioaren albo-ohar baten bitartez, erregistrazioaileak agerrarazi behar du eskualdatutako ondasun edo eskubideagatik bidezko den likidazioa edo likidazio osagarria ordaindu beharko dela.

Albo-oharra ofiziosz egingo da, eta indarrrik gabe eta deuseztatuta geratuko da egindako likidazioaren ordainketa agiria aurkeztzen denean eta, nolana ere, albo-oharra egin zenetik bi urte igaro eta gero».

Bederatzi. 55. artikulua 1. apartatua honela geratu da idatzita:

«1. Honako hauek ez dira zertan aurkeztu bulego likidatzaileetan:

a) Efektu publiko, akzio, obligazio eta era guztietako balore negoziagarriak eskualdatzeko formalizatzen diren agiriak, horietan notarioak eta balore sozietate eta agentziak esku hartzaile direnean.

